

udal**top**

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN**

TOPAKETAK

www.udaltop.eus



GOGOBETETZE INKESTA EMAITZAK

2024ko ekaina



GOGOBEKETZE INKESTA 2024

SARRERA

Nola erakarri etorri berriak euskarara? Eta, euskaldunok, nola gerturatu etorri berrietara? izenburupean, Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketa egin da 2024ko maiatzaren 16an eta 17an. Aurreko edizioan bezala, parte-hartzaileek aukera izan dute jardunaldia Lasarte-Oriako Manuel Lekuona etxean edo online bidez pantailaz bestalde jarraitzeko.

Parte-hartzaileen iritzia ezagutzeko asmoz (guztira, 317 lagunek jarraitu dute jardunaldia) **Gogobetetze inkesta** bidali da eta astebetean, 60 erantzun jaso ditugu, aspaldi jaso dugun kopuru baxuena. IZFEko zerbitzariak azaroak izan ditu eta partehartzaileek ez dute inkesta betetzeko lotura jardunaldia pasa eta berehala, eta, eragina izan du. Maila komunikatiboan ahaleginak egin diren arren, ez da esperotako emaitza jaso.

Galdetegian azpian zehazten ditugun eremuak jaso dira zenbakiz –eskala numerikoan, 1-5 artean puntuatzeko– eta idatziz erantzuteko:

1. Eskainitako hitzaldiak egokiak izan al dira?
 - a. Hitzaldi guztien balorazioa jaso da, banaka, eta 1-5 arteko eskalan puntuazioa emateko eskatuz (txostenak ez du balorazio hori jasotzen).
2. Eskainitako bideo-testigantzak egokiak izan dira?
 - a. Bideo guztien balorazioa jaso da, banaka, eta 1-5 arteko eskalan puntuazioa emateko eskatuz (txostenak ez du balorazio hori jasotzen).
3. Bideo-testigantzek egitaraua arintzeko eta aberasteko ekarpena egin dute?
4. Iruzkirik egin nahi diozu hitzaldiren edo bideo-testigantzaren bati? Utzi hemen zure gogoeta.
5. Zer iruditu zaizu Imanol Epelderen saioa?
6. Zer iruditu zaizu Ihintza Arrieta Imatzen aurkezlearen lana?
7. Talde-lanaren dinamizazioa egokia izan al da?
8. Zer iruditu zaizu bazkalostean antolatu den "Egunean behin ez, baina urtean behin?" dinamika?



GOGOBETETZE INKESTA 2024

9. Zer iruditu zaizu Udaltop jarraitzeko eskaini dugun formula mixtoa? (Manuel Lekuonan, aurrez aurre; eta, online).
10. Streaming emisioa egokia izan da?
11. Interpretazio zerbitzua egokia izan da?
12. Maila teknikoan, zer iruditu zaizkizu topaketak?
13. Zer iruditu zaizu Araetako otorduen zerbitzua?
14. Topaketa hauetan espero zenuena jaso duzu?
15. Zer iruditu zaizkizu Topaketak oro har?
16. Hobetzeko iruzkinak proposatu.
17. Hurrengo Topaketarako egokiak izan daitezkeen gaiak proposatu.
18. Bestelako aipamenak.



GOGOBETETZE INKESTA 2024

ERANTZUNAK, BATAZ BESTEKOAK

Jarraian, galderaz galdera, **Balorazio inkestan** jasotako erantzunekin ateratako bataz bestekoak, puntuaziorik altuena 5a dela kontuan izanik.

- Eskainitako hitzaldiak egokiak izan al dira?
 - Bataz bestekoa: **4,03 puntu.**
- Eskainitako bideo testigantzak egokiak izan dira?
 - Bataz bestekoa: **4,01puntu.**
- Bideo-testigantzek egitaraua arintzeko eta aberasteko ekarpena egin dute?
 - Bataz bestekoa: **4,4puntu.**
- Talde lanaren dinamizazioa egokia izan da?
 - Bataz bestekoa: **4,27 puntu.**
- Zer iruditu zaizu formula mistoa?
 - Bataz bestekoa: **4,44 puntu.**
- Streaming emisioa egokia izan da?
 - Bataz bestekoa: **4,2 puntu.**
- Interpretazio zerbitzua egokia izan da?
 - Bataz bestekoa: **3,38 puntu.**
- Maila teknikoan, zer iruditu zaizkizu topaketak?
 - Bataz bestekoa: **4,01 puntu.**
- Zer iruditu zaizu Araetako zerbitzua?
 - Bataz bestekoa: **3,94 puntu.**
- Topaketa hauetan espero zenuena jaso al duzu?
 - Bataz bestekoa: **4 puntu.**
- Zer iruditu zaizkizu topaketak oro har?
 - Bataz bestekoa: **3,08 puntu.**



GOGOBEETETZE INKESTA 2024

BESTELAKO IRUZKINAK

Gogobetetze inkestan partehartzaileei bestelako gogoetak egitea edota hobetzeko iruzkinak idaztea eskatu zaie. Hona hemen erantzunak, atalez atal.

Iruzkinik egin nahi diozu hitzaldiren edo bideo-testigantzaren bati? Utzi hemen zure gogoeta

1. Eduki gehiegi pilatzen.
2. Hitzaldi/bideo gehiegi ematen dira.
3. Denboraren kudeaketa ez da fin ibili zenbait momentuetan: ordezkari politikoen hasierako aurkezpena arinago egin daiteke. Horrez gain, bereziki aipatzekoa da Javi Pérezen hitzaldia zenbat luzatu zen. Errespetu falta handi samarra izan zen ondoren zetozen hizlari eta bideo testigantzentzat, beren saioak prestatzen eman zuten denbora kontuan hartuta. Antolakuntzaren aldetik hitzaldi hura lehenagotik moztu behar zen.
4. Bideo testigantzek egitaraua arintzen dute, baina aurten sobera ziren, eta, formatu estatikoan gehienak. Elkarrizketa modukoak zerbait ekarri du; besteek, aldiz, ez hainbeste.
5. Isidor Mariren lehenengo zatiaren interpretazio lana eskasa.
6. Berriki gurera etorritakoen ahotsak faltan sumatu ditut hitzaldietan. Halakoetan, mahai inguru formatuak interesgarriak izaten dira.
7. Uste dut Javi Pérezen parte hartzeak tarte osoa merezi zuela; bere ataleko beste biak nahiko deskonpentsatuta geratu ziren.
8. Orokorrean, megafoniak edo audioak ez dute behar bezain ongi funtzionatu. Adb. itzultzaileari hizlariari baino gutxiago entzuten zitzaion; bideo batzuetan hizlariak azkar hitz egiten zuen eta ez zen ulertzen. Bestalde, bideo bat katalanez eman zen ostiralean (itzultzailerik ez genuenean).
9. Hitzaldiak eta bideo testigantzak interesgarriak izan dira. Hobetzeko, hitzaldien denbora-kudeaketa eta bideoak ikusteko arazo teknikoak.
10. Sobera luzatu zen hitzaldiak, ongi dakizuen moduan, ondorengoak mugatu zituen. Errespetu falta handi iruditu zitzaidan.



GOGOBEKETZE INKESTA 2024

11. Javi Pérez-en hitzartea gehiegi luzatu zen eta ondorioz beste partaideen hitzarteei denbora kendu zien. Esaterako, berarekin batera aritu behar ziren Nora Palmitano eta Julen Arangurenen tartek oso interesgarriak izan arren, erabat mugatu zituen. Baita Bortzirietako esperientzia ere.
12. Oso interesgarriak izan dira guztiak, konbinazio ona!
13. "EAE-ko tokiko harrera-politikak diseinatzeko orientabideak" hitzaldiari nota baxua eman diot iraupenagatik. Edukia oso interesgarria iruditu zitzaidan, baina lehenengo hitzartzea gehiegi luzatu zen. Azkenerako haria galdu nuen. Bestalde, bideo batzuk egokiak iruditu zitzaizkidan, baina nire gusturako gehiegi. Saioa oso trinkoa zen, oro har, eta bideo batzuk kentzen ahal ziren.
14. Primerakoa iruditu zitzaidan Sos Arrazakeria Gipuzkoa elkarteko bozeramaileak egin zuen hitzaldia (bideoan). Oso aberasgarria. Nahiz eta euskal soziolinguistikatik edo euskalgintzatik zetorren parte hartzailea ez izan, sekulako jakintza dauka gaiaren inguruan. Zeharlerrotasun hori datozen jardunaldietan ere erakusten bada, primeran; hau da, euskalgintzaren eremukoak propio ez diren ponenteek dena delako gaien egiten duten ekarpena jaso.
15. Hitzaldi batzuen edukiak eztabaidarako tarte handiagoa eskatzen dute. Agian, hitzaldi-kopurua mugatu eta bakoitzari eskainitako tarte luzatu beharko litzateke



GOGOBEKETZE INKESTA 2024

Hobetzeko iruzkinak:

1. Denboraren kudeaketa hobea egitea, eduki gutxiago sartu eta arnasa eman hitzaldi batetik bestera.
2. Aurtengo talde lanaren planteamendua ez zait egokia iruditu eta dinamizazioa ere eskasa.
3. Udaltop jendea gurutzatzeko espazioa ere bada. Baina egitarauan hamaiketakoaz aparte, aukera gutti dago finalean. Talde lan baten tokian, elkar-ezagutza dinamika bat antolatzen ahal litzateke. "5mn elkar ezagutzeko eta elkar inspiratzeko" moduan. Hamaiketakoaren gela aski txiki geratzen da eta zarata askorekin.
4. Denboraren kudeaketa.
5. Hizlariak denbora hobeto kudea dezaten "neurri zorrotzagoak" hartu beharko dira.
6. Hizlariak daukaten denbora errespetatu beharko luketela argi izan behar dute eta hala egiten ez badute, moztu egin beharko zaie derrigorrez.
7. Denboraren kudeaketa. Hitz-hartze guzti-guztietan atzeman da hizlarien estutasuna eta ezin sakondua. Hobe litzake hitzaldi gutxiago programatzea, hitzaldi bakoitzean gehiago sakontzeko eta arreta edukietan jartzeko. Desatsegina izan zen entzuleentzat, zer esanik ez hizlariarentzat...
8. Kafe garaian kafea, esnea... gaztelaniaz zeuden.
9. Denborak errespetatu daitezela, ez da onargarria batzuk asko hitz egin izanagatik edo beranduxeago hasi izanagatik, beste hizlari batzuk haien tartea laburtu behar izatea, edo egitaraua luzatu izana.
10. Itzultzaile-hizlari bolumenak orekatu.
11. Esperientzia gehienak beti dira herri oso euskaldunetakoak eta beti ditugu faltan hiri handietarako eta ez hain euskaldunetarako ideiak, adibideak, esperientziak...
12. Hitzaldien denborak errespetatu behar direla uste dut, eta aurrekoak luzatzen badira eta zuri denbora mugatzen badizute, sintetizatzen jakin behar da. Normala da zertxobait luzatzea, baina askotan pasatu zen (nahiz eta gero azkenean dena ordurako bukatu). Kasu horietan aurkezlearen esku-hartzea



GOGOBEETETZE INKESTA 2024

beharrezkoa ikusten dut, aurreko urtean bezala. Ez soilik eszenatokian agertu, baizik eta horrela ere denboraz luzatzen bada, agian hitzaldia moztea litzateke onena.

13. Hamaiketakoarentzat, tortilla eta pintxoak, pastizeria orde; ;-)
14. Talde-dinamizatzaile aritu naiz eta antolakuntza hobetu beharra ikusi dut. Hobeto prestatu behar dira, aldez aurretik materiala bidali, prozesuan zehar lagundu. Hobeto antolatu.
15. Denbora hobeto zaindu beharra.
16. Lan taldeetan aritzeko adibideetan aniztasun pixka bat falta zela iruditu zitzaidan. Ez ziren Euskal Herri osoan izaten ahal diren profilak ageri.
17. Topaketei batasuna emango dien gai bat behar da. Bestela, gauza sakabanatuei buruz jarduteko arriskua dugu, elkarren arteko loturarik gabekoak
18. Hizlarien denboraren kudeaketa aktiboagoa egitea
19. Denboraren kudeaketa.
20. Orohar EAerentzat prestatutako topaketak direla ematen du, nahiz eta Nafarroako eta Iparraldeko testigantzak jaso. Talde lanekoa, esaterako, erabat EAerako jendearentzat zen aproposa.
21. Hamaiketakoan goxoaz eta frutaz aparte ongi legoke zerbait gazia jartzea, osasuntsuagoa delakoan, bolloak baino...
22. Hitzaldi sorta oso interesgarria planteatu da, baina denbora muga ez da batere eroso. Hau da, etengabe moztu behar izatea ez zait egokia iruditzen. Aukeran, hitzaldi gutxiago eta hizlarietako denbora gehiago eman luze eta zabal azaltzeko eta galdera tartea egiteko.
23. Desoreka izan zen hizlari batek "lapurtu zuen" denbora eta ondorioz, bestei moztu arazi zitzaizkirekin.
24. Bazkarian Gipuzkoako sagardoa, Gipuzkoako ura.... eta Castilla-León /Valladolideko ardoa? Ze errespetu gutxi!!!
25. Hitzaldietako denboraren kontrola (badakit ez dagoela zuen esku, baina aipatu dudan moduan, bat luzatzeak deskontzentratzeko bidea ireki dezake). Agian ostiraleko egitarauan aldaketa txiki bat proposatuko nuke: lehenengo hitzaldiak eta bideoak eta talde lana bukaeran. Talde lana eta atsedeneren ondoren



GOGOBEKETZE INKESTA 2024

nekezagoa egin zitzaidan hitzaldiak jarraitzea; alderantziz eginda, ordea, errazagoa izan liteke talde lanean murgiltzea, iruditzen zait.

26. Hizlari bakoitzaren denbora hobeto neurtu.
27. Ongi litzateke segurtatzea bapateko itzulpena ere ostiralean. Gauza batzuk izan baitira katalanez eta uste dut ere espainolez.
28. Hasierako politikarien luzimendurako irekiera ekitaldia sobera dago, arrazoi desberdinengatik.
29. Hitzaldietako edukiak nire jakinmina ase zuen neurri handi batean. Edonola ere, lantaldeetan ekarpenak emateko asmoa nuen eta formatua nahiz lekua ez ziren egokiak izan helburu horretarako.



GOGOBEKETZE INKESTA 2024

Hurrengo topaketetarako egokiak izan daitezkeen gaiak

1. Nola egin euskara-teknikarien belaunaldi-aldaketari? Ezagutza nola transmititu?
2. Euskara teknikarien (euskara arloko profesionalen) elkargoa sortzeko bidea aztertzea
3. "Mintza daitezela periferiak!" Odei Barroso bertsolari eta rap abeslariaren hitzak berriz hartuz, euskararen biziberritze prozesuak ezagutzen dituen erronken inguruan, zer dugu ikasteko Euskal Herriko periferiatik? Zer ari da gertatzen gazteekin Baxe Nafarroan? Zer diskurtso berri eraikitzen ari dira Nafarroan? Nola bizi arazten dituzte arnagune eta uneak Araban? Nola indartu lurralde desberdinen arteko harremanak? Zein dira euskal nortasun mota berriak? Aukera izan daiteke ere, beroketa gisa aitzineko asteetan Gipuzkoatik kanpoko lurralde batean egitea...
4. Euskararen identitateAK (hiztun izan ala izan ez) nondik eta nola dabilzan eraikitzen, eta nolako garapena izaten ari diren.
5. Ez zait gai zehatz bat bururatzen, baina Euskaltzaindiak dinamizatu duen gogoeta-taldearen haritik izan beharko luke.
6. D eredua: nola hobetu murgiltze eredua?
7. Bertakoak eta euskaradunak ez direnak nola hurbildu euskarara? Eta; 7 lurraldeen arteko hizkuntz politika amankomun baterantz? eta nola?
8. Euskal hiztunak eta arduradun politikoak ahalduntzeko saioak edo esperientziak
9. Aurtengo gai sakontzea merezi duela uste dut. Iparraldean eta Nafarroan euskarak bizi dituen egoerek ere zentralitatea izatea ere ongi legoke, maiz EAEzentrismoa nagusitzen delako.
10. Aro digitalaren erronkak euskararentzat.
11. Euskararen gaineko diskurtsoak.
12. Administrazio publikoetako arduradunen lidergotza: nola landu?
13. Nerabeak eta euskara.
14. Gai honetan hausnartzen jarraitzea gustatuko litzaidake.
15. Aktibismoa, gizarte-mugimenduak, konpromiso likidoa, neuro-zientziaren ekarpenak.



GOGOBETETZE INKESTA 2024

16. Zaintza zerbitzua, euskararen erabilera sustatzeko moduak.
17. Lanbide Heziketako eta Unibertsitateetako ikasketa-ereduen desorekak eremu sozioekonomikoan dituen ondorioak.
18. Euskara teknikari / Hizkuntza teknikari ofizioa bera, eta bere aitortza egoera, premiak, aukerak, arriskuak, etab. nazioarteko ereduen argitan ikusita.
19. Lantaldeei garrantzia handiago eman, gaiak landuago eramanda eta bakoitzak egokien ikusten duen gaia jorrazteko aukera eskainita. Lekua hobetu behar da, izan ere, gurean ez zegoen ondo entzuterik ezta ondo ulertarazteko modurik. Mahairik ere ez, ekarpenak ondo jasotzeko. Horrelakoak hurrengo baterako konpondu behar dira.



GOGOBEKETZE INKESTA 2024

Bestelakorik aipatzeko

1. Biba zuek! Zinez lan ederra eta espazio baliosa.
2. Zorionak!! Beharrezko den lan bikaina egiten duzue lantalde osoak, segi horrela urte askotan.
3. Topaketen maila benetan bikaina iruditu zait, bai edukien aldetik, baina batez ere, hizlarien aldetik. Talde dinamika ere oso egokia. Ikaragarri ikasi dut. Antolaketa eta giroa ere bikaina. Imanol Epelderen abestia izugarria! Eskerrik asko zuen lanagatik!
4. Oro har, ongi. Galdera asko formulatzeko aukera eman du topaketak, aukeran, erantzun gutxi eta bide-orri argirik ez. (gaiarekiko).
5. Mila esker jardunaldiak antolatzeagatik, oso interesgarriak dira beti.
6. Ondo aukeratu datorren urteko datak Euskaraldia maiatzaren 15etik aurrera izango dela kontuan hartuta.
7. Euskaraldiaren laugarren edizioa 2024eko maiatzaren 15etik 25era izanen da. Ahal dela, eskertuko nuke Udaltop egun horietan ez izatea.
8. Aurten denboralizazioa ez da ondo kontrolatu, hurrengoetarako denbora tartea gehiago zaintzea komeni da
9. Aurtengo Udaltop itzela izan da!
10. Zorionak egiten duzuen lanarengatik eta esker mila aunitz!!!
11. Mila esker, maila handiko topaketa da Udaltop!
12. Eskerrik asko egiten duzuen lanagatik.
13. Formula mistoarekin jarraitu.
14. Batzuetan oso erkidegora begira daude saioak.
15. Txikikeria bada ere, hamaiketako orduan hainbeste gozo banatu ordez, gazia hartzeko aukera emango nuke. Fruta oso egokia.
16. Saio gehiegi edota denboran estuegi, ondoeza sortzeraino.
17. Parte hartzen nuen lehenengo aldia izan zen eta benetan, oso emankorra iruditu zitzaidan! Hitzaldiak oso onak, ostiraleko lan-dinamika ere oso ona!



GOGOBEKETZE INKESTA 2024

CONSORCI PER A LA NORMALITZACIÓ LINGÜÍSTICA

2022ko edizioan bezala, aurten ere Consorci per a la Normalització Lingüística erakundeko teknikariek osteguneko saioa jarraitu zuten. Guztira, 47 teknikarik eman zuten izena eta haien iritzia ezagutzeko asmoz Gogobetetze inkesta bidali zaie.

Galdetegian azpian zehazten ditugun eremuak jaso dira zenbakiz –eskala numerikoan, 1-5 artean puntuatzeko– eta idatziz erantzuteko. Guztira, 21 lagunek bete dute formularioa:

1. Eskainitako hitzaldiak egokiak izan al dira?
 - a. Hitzaldi guztien balorazioa jaso da, banaka, eta 1-5 arteko eskalan puntuazioa emateko eskatuz (txostenak ez du balorazio hori jasotzen).
2. Iruzkirik egin nahi diozu hitzaldiren edo bideo-testigantzaren bati? Utzi hemen zure gogoeta.
3. Topaketa hauetan espero zenuena jaso duzu?
4. Zer iruditu zaizkizu Topaketak oro har?
5. Ostiraleko ponentzien txostenak jaso nahi dituzu?
6. Interesgarria iruditu zaizu Euskal Herriko esperientziak ezagutzea?
7. Euskal Herriko normalizazio-teknikariek ideiak eta esperientziak trukatzeari interesgarria izango litzatekeela uste duzu?
8. Proposamen zehatzik baduzu?
9. Bestelako aipamenak.



GOGOBEKETZE INKESTA 2024

ERANTZUNAK, BATAZ BESTEKOAK

Jarraian, galderaz galdera, **Balorazio inkestan** jasotako erantzunekin ateratako bataz bestekoak, puntuaziorik altuena 5a dela kontuan izanik.

- Eskainitako hitzaldiak egokiak izan al dira?
 - Bataz bestekoa: **4,3 puntu.**
- Topaketa hauetan espero zenuena jaso duzu?
 - Bataz bestekoa: **4,04 puntu.**
- Zer iruditu zaizkizu Topaketak oro har?
 - Bataz bestekoa: **4,28 puntu.**
- Ostiraleko ponentzien txostenak jaso nahi dituzu?
 - Bataz bestekoa: **4,36 puntu.**
- Interesgarria iruditu zaizu Euskal Herriko esperientziak ezagutzea?
 - Bataz bestekoa: **4,71 puntu.**
- Euskal Herriko normalizazio-teknikariekin ideiak eta esperientziak trukatea interesgarria izango litzatekeela uste duzu?
 - Bataz bestekoa: **4,9 puntu.**



GOGOBEKETZE INKESTA 2024

BESTELAKO IRUZKINAK

Gogobetetze inkestan partehartzaileei bestelako gogoetak egitea edota hobetzeko iruzkinak idaztea eskatu zaie. Hona hemen erantzunak, atalez atal.

Iruzkinik egin nahi diozu hitzaldiren edo bideo-testigantza bati? Utzi hemen zure gogoeta

1. Maite Puigdevallen hitzaldiak behin eta berriz azpimarratzen zuen CPNLren baliabide falta, eta ez zuen erakundea oso leku onean utzi. Haren atzean, Prestakuntza eta Sustapen Esparruko zuzendariaren bideoa, laburra, eta funtsean CPNLk egiten duen prestakuntza-lana deskribatzen zuena, konbinazio txarra izan zen, leunki esateko
2. Esku-hartze guztiak argitsuak izan ziren. Isidor Marírena, bereziki.
3. Denak iruditu zitzaizkidan interesgarriak, eta esango nuke garaiz gabe hitz egin ahal izan nuela guztiaz.

Proposamen zehatzik baduzu?

1. CPNL dinamizatzeko lana ikusgarriago egitea formatu parte-hartzailean, eta ez grabatutako bideo batean. Esperientziak trukatzuz eta eraginkortasuna aztertuz.
2. Hizkuntza sustatzen duten administrazio publikoei buruzko jardunaldiak antolatzea, Generalitateari buruz ez ezik, eskualde-kontseiluei, diputazioei, udalei eta Herrialde Katalanetako beste erakunde publiko batzuei buruz ere bultzatu beharreko ideia dela iruditzen zait, esperientziak trukatzeko eta sentsibilizatzeko.
3. Ikasgelan sentsibilizazio-proposamen zehatzak partekatzea.
4. Gustura ikusiko nituzke ponentziak bikoiztuta edo, ezin bada, azpitoluekin. Zati batzuk ez ziren itzuli, eta normalizatorako lan egiten dugunok errazago ibili beharko genuke informazio eta esperientzia horietan.



GOGOBEKETZE INKESTA 2024

Bestelako aipamenik baduzu?

1. Itzulpenak ez ziren oso onak izan, eta, kasu batzuetan, ez ziren itzuli.
2. Asko gustatu zait euskararen hedapenaren inguruan arnasten den baikortasuna.
3. Interesgarria da ezagutzea hainbat giza-taldetan euskaraz hitz egiteko grina nola pizten den.
4. Oso esperientzia interesgarria eta osoa izan da.
5. Interesgarria litzateke metodologiak partekatzea hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionez.
6. Uste dut edukiaren zati handi bat galdu nuela eta ezin izan nituela hitzaldiak nahi bezala aprobetxatu, zaila zelako interpreteetako baten hariari jarraitzea. Nire ustez interesgarriena Euskal Herriko lankideen hitzaldiak ziren, eta informazio asko galtzen zen aldibereko itzulpen zerbitzuarekin. Gainera, osteguneko hizlari askok beren azalpenen zati bat bizkortu eta gainditu behar izan zuten denbora faltagatik (lehen hitzaldiak, katalanez, gehiegi luzatu ziren).
7. Estatuak jarrera argiagoa izan beharko luke kulturartekotasunari buruz.
8. Uste dut oso ideia ona litzatekeela esperientziak eta ideiak trukatzeko espazioak ezartzea.
9. Eskerrik asko parte hartzeko aldi bereko interpretazioarekin eta txatarekin, dena zuzenean.
10. Oso aberasgarria izan da esperientziak partekatzea eta antzeko egoerak nola kudeatzen dituzten ikustea.